

AGINDUAK

HAURTALDEA: Talde osoa

TOKIA: Atherbean, toki zabal batean

HELBURUA: Lagun bati zerbait agindu/ lagun baten agindua betetu.

HIZKUNTZA: AGINTERA- BAIEZKOA-EZEZKOA

AURKEZPENA

1- Haurrak ingurutxoan jarri dira.erakasleak haur bati dio : « Xuti zaitez ».haurra xutitzen da eta hautatzen duen haur bati agindu ber bera ematen dio : « Xuti zaitez Peio ».Pixkanaka pixkanaka, haur guztiak xutitzen dira.

2- Lehen jokoa bezala bainan denak xutik dire .Agindua da : « Jar zaitez »

3- Erakasleak haur bati : « Uki ezazu zure sudurra ».Haurrak ukitzen du besteek begiraten dute ea ongi egiten duen bestelan erraten diote : « ez hau ez da zure sudurra ».

Ondotik sudurra ukitu eta jartzen da eta lagun bati agintzen dio : « uki ezazu zure zangoa ».Jokoa segitzen da haur guziak jarriak izan arte.

Hurrek ,ikas gelako ekintza desberdinetan landua izan diren gorputz atalak baliatu beharko dituzte ahal bezain errepika gutti eginez.

ONDORIOAK:

- eskolako aktibitateetan gorputz atalen hiztegia aberastu (dantzak, kirola, marrazkiak...)
- Eguneroko eskolako bizian, « ezazu » egitura beste aditz batzuekin erabil (egin, jastatu,tiratu , pusatu...)
- Eguneroko eskolako bizian « zaitez » egitura erabil beste aditz batzuekin (pusatu ,igan, jautsi...)